



Minas

Instituto
Educación
Secundaria

Bigarren
Hezkuntza
Institutua

IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. TESTUINGURUAREN ANALISIA.....	6
3. PRINTZIPIOAK, BALIOAK ETA EZAUGARRIAK	8
4. HELBURUAK	9
5. LERRO ESTRATEGIKOAK.....	10
5.1. Lerro horiek curriculum esparruan gauzatzeko irizpideak	11
5.2. Lerro horiek antolakuntza esparruan gauzatzeko irizpideak	14
6. IHP-REN IRAUNALDIA ETA BERRIKUSPENA.....	16

1. SARRERA

Hezkuntza Sailak hiru ikasturteetan Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua egin behar zela jakinarazi zien ikastetxeei baina plana bi ikasturtean zehar aurrera eramatea erabaki zen. 14-15 ikasturtean, hiri hezkuntza proiektua landu zen eta 15-16 ikasturtean zehar Barakaldoko ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza proiektua egingo du.

Lan honetarako oinarrizko material gisa Hezkuntza Sailak hezkuntza proiektu hau egiteko eskainitako gida erabili da.

Minas Bigarren Hezkuntzako Institutua (Minas BHI) Barakaldo herrian kokatua dago. Barakaldo Bizkaiko erdialde-mendebaldeko udalerrri eta hiri bat da, Bilbo Handia eskualdekoa, Ibaizabal ibaiaren mendebaldean kokatuta. Mendebaldean, Argalario mendiarekin eta Alonsotegi udalerriarekin egiten du muga; Hegoaldean Bilborekin eta iparraldean Trapagaran eta Sestaorekin. Galindo eta Kadagua ibaiek muga naturala egiten dute iparraldean eta hegoaldean.

Barakaldoren erdigunea muino batean ezartzen da, apurka Ibaizabal ibairantz altuera galduz doana. Ansioko eta Lutxanako gunek erdigunea Gurutzeta auzotik banatzen dute, azken hau ere muino batean ezartzen dela.

Biztanleriari dagokionez 2015ean Barakaldok 98.964 biztanle zituen, Euskal Herriko hiririk jendetsuenetan bosgarrena zen, probintziako hiriburu ez den hiririk jendetsuena. XX. mendearen hasieran 15.000 biztanle baino ez zeuzkan, beraz, argi ikus daiteke izandako hazkunde izugarria. Gerra Zibilaren ostean, Gurutzeta, La Paz eta Barakaldoko gunek nagusiak osatzen joan ziren.

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen lehen hamarkadetan gertatu zen Barakaldoko lehen hazkunde nagusia. Garai hartakoa da Bizkaiko lehen industrializazio prozesua, Bilboko itsasadar osoan eragin sakona izan zuena. Bizkaia osotik zein Espainiatik etorkinak iritsi ziren herrira, lantegietan lan egitera.

1950eko eta 1960ko hamarkadak Espainiako bigarren etorkin uholdearen lekuko izan ziren. Hogei urte horietan Barakaldoko biztanleria ia hirukoiztu egin zen.

1970eko hamarkada hasieran 120.000 biztanle izatera ailegatu ostean, krisialdi ekonomikoak eragin latza izan zuen hirian. Bilboko industrializazioaren ardatz

izandako enpresen itxierak, eta ondorioz sorturiko langabezia tasa altuek hiriak ehunka biztanle galtzea eragin zuten. Aurretik lan bila etorritako biztanle askok, euren jaioterrietara jo zuten, behin erretiroa ailegatuta. Hori izan zen joera XXI. mende hasierara arte.

2002. urteaz geroztik egondako berritzapen eta azpiegitura obrek, ordea, hazkundera ekarri zuten berriz ere Barakaldora, ez ordea aurreko mendean bezain sarria. Izan ere, bertako etxebizitza prezio merkeagoek, Bilbo Handiko beste udalerrietatik jendea erakarri zuten. Milaka etxebizitza eraiki ziren Barakaldon XX. mendeko lehen hamarkadan eta beste horrenbeste eraikitzeke asmoa zegoen 2008ko krisialdi ekonomikoa lehertu baino lehen.

2002tik aurrera Espainia ez besteko etorkinak agertu ziren, etxebizitzaren prezio merkeagoek erakarrita. Barakaldoko biztanleriaren %3-%4 ziren mota honetako etorkinak.

Hizkuntzari dagokionez 2010. urtean euskaldunak %18,07a ziren

Udaleko informazioa	
	2011
Barakaldo	
Euskaldunak	17.679
Euskaldunak. Alfabetatuak	15.233
Euskaldunak. Zati batean alfabetatuak	1.324
Euskaldunak. Alfabetatu gabeak	1.122
Ia Euskaldunak	27.689
Ia-euskaldun alfabetatuak	18.400
Ia-euskaldun alfabetatu gabeak	2.586
Ia-euskaldun pasiboak	6.703
Erdaldunak	51.326
Ama hizkuntza. Euskara	1.819
Ama hizkuntza. Gaztelera	91.667
Ama hizkuntza. Biak	2.147
Ama hizkuntza. Beste bat	3.893
Etxeko hizkuntza. Euskara	1.552
Etxeko hizkuntza. Gaztelera	93.513
Etxeko hizkuntza. Biak	2.570
Etxeko hizkuntza. Beste bat	1.891

Orokorrean, Barakaldok gizarte, kultura eta kirol ekipamendu nahikoa du.

Udal hezkuntza eskaintza honako hau da: bi udal haur eskola, Haur eta Lehen Hezkuntzako hamabi herri-ikastetxe, Bigarren Hezkuntzako lau institutu, Lanbide Heziketa Osoko institutu bat, itunpeko bederatzi ikastetxe, Helduen Hezkuntzako ikastetxe bat, Lanbide Hastapenerako Ikastetxe bat, Hizkuntza Eskola Ofiziala, Musika Kontserbatorioa eta herri honetan beste inon jarduten ez duen Berritzegunea (irakasleen prestakuntzarako eta hezkuntza berrikuntzarako zentroa).

Ikasleak honako modu honetan daude eskolatuta:

Udaleko informazioa	
	2013
Barakaldo	
HEZKUNTZA SISTEMA: IKASLEAK...	.
• hezkuntza mailaren arabera	.
▪ Erregimen orokorreko irakaskuntzak. Guztira	14.920
➢ Haur Hezkuntza	4.177
➢ Lehen Hezkuntza	5.138
➢ DBH	2.849
➢ HHE	655
➢ Batxilergoa	818
➢ LH Erdi mailakoa	408
➢ LH Goi mailakoa	709
➢ HB (Ataza ikaskuntza)	15
➢ HLPP	129
• Irakaskuntza Elebiduneko Ereduen arabera	.
▪ Guztira	14.920
➢ A	3.051
➢ B	6.737
➢ D	5.132
• Ikastetxearen Titulartasunaren arabera	.
▪ Guztira	14.920
➢ Publikoa	8.211
➢ Pribatua	6.709

(EUSTATEk emandako datuak)

IKASTETXEAREN HISTORIA

Minas BHI ikastetxearen jatorria Lanbide Heziketarako eskola bat da: 1967an Barakaldon eta gure eskualdean industriarako eta meatzaritzarako profesionalen prestakuntzaren premiari erantzuteko inauguratu zuten meatzaritza eta siderometalurgia espezialitateari abiatuta; Nicolás Larburu Arrizabalaga jauna fundatzailea eta lehenengo zuzendaria izan zen.

1996-97 LOGSE legea indarrean jarri zenetik Bigarren Hezkuntzako Institutua bilakatu zen. Une honetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergorako ikastetxea da.

Minas BHIko ezaugarriak funtzionamendu zein curriculum mailan hurrengoak dira:

- Euskararen erabilera sendotu eta bere kalitatea aberastu.
- Proiektu berritzaileak eta berrikuntza pedagogikoak bultzatu, etengabeko hezkuntzaren aurrerapenak ez duelako amaierarik.
- Aniztasunari, desberdintasunari, berezitasunari erantzun egokia eman
- Ikasle eta irakasleen arteko harreman komunikatiboak eta osagarriak bultzatu.
- Irakasleen arteko koordinazioa bultzatu, ezartzen doazen oinarriak sendoagoak izan daitezen.

Jakinda landu beharreko dokumentuen artean IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA dugula nagusi, 2014-2015 ikasturtean hasi ginen proiektu honekin eta 2015-2016 ikasturtean burutu nahi dugu. Hurrengo orrialdeetan aurkezten den proposamen orokorra Minas Institutuko Hezkuntza Proiektua da. Ikastetxearen jardueren bidez lortu nahi diren baloreak eta oinarrizko helburuak zehazten dira. Proiektu honek zentro-jardueraren eratze-tresna erabilgarria izan nahi du; etorkizunari begira denon artean markatutako norabidea jarraitzeko laguntza. Azken finean, irakaskuntza hobetzeko bidea ikastetxearen autonomia da.

2. TESTUINGURUAREN ANALISIA

Minas Institutua Barakaldoko Sta Teresa-Beurko auzoan dago, langile-auzoa da aspaldidanik, immigrazioa azken urteotan sekulako eragina izan duelarik. Hori gutxi balitz nozitu dugun krisialdi ekonomikoaren eraginez geure profil sozio-ekonomiko eta kulturala ondoriozta daiteke. 2015eko Ebaluazio Diagnostikoaren adierazleen arabera gure ikastetxerako, geure ISEK profila (Indize SOZIO-EKONOMIKOA eta Kulturala) baxua da. Hortaz ikasle bekadun kopurua nahiko handia da eta badaude arazo ekonomiko larriak dituen familia ugari.

Testuinguru soziolinguistikoari dagokionez geure ikasle gehiengoaren ama-hizkuntza gaztelania da. Familia etorkinen ikasleen portzentajea % 8-9a da,

gehienbat iberoamerikarrak eta gutxiago ekialdeko Europatik etorrita (errumaniarrak, lituaniarrak. Horren ondorioz euskara eta euskal kulturaren egoera ez da pozik egoteko moduan geure ikastetxean eta irauli ahal izateko guztion aldetik sekulako ahalegina beharko du. Gure Hezkuntza Proiekturako beraz, oso erronka garrantzitsua da, alde batetik D ereduaren aldetik aukera irmoa eustea. Une honetan, 2015-2016.ikasturtean, **ikasleen %17a** baino ez (**44 ikasle; guztira 253 dira**) **B eredu**an daude matrikulatuta DBH 4 mailetan, eredu euskalduna soilik, Batxilergoan. Gogoz sustatu behar dugu gure ikasleen artean euskararen erabilera eta euskal kulturaren ezagupena eta maitasuna gure ondarrerik preziatuena baita. Ezinbestekoa da geure ikastetxean bertan, orain bizi dugun diglosiarekin amaitzea, izan ere gure ikasleak bi urteko gelatik aurrera eredu euskaldunetan eskolatuak izanda zailtasunak dituzte bat-batekotasunez eta jariotasunez euskaraz adierazteko. Euskara eta euskal kulturaren adierazpen esparruak sortzea, jokoak, jaiak, sorkuntza eta harremanak, testuingurua izanik, erabateko lehentasuna izango du geure Hezkuntza Proiektuan ez ezik, geure Normalkuntza proiektuan ere. Aldi berean familien inplikazioa jarrera eragingarriak adierazten hedabide euskaldunak eta euskal jaiak eta kultura eskaintzak eta ekoizpenak kontsumitzeko animatzen ezinbestekotzat jotzen dugu.

Lehenengo atzerriko hizkuntzari dagokionez, ingelera, hizkuntza trataera integratu bat lehenetsi behar dugula esan beharra dago, euskarak, gaztelaniak eta ingelarak curriculumean garrantzi orekatu batekin, helburuak eta emaitza akademikoak hobesteko, komunean estrategiak diseinatu ditzaten.

XXI.mendeko euskal gizartea eleanitza da, beraz eskolarako pertsonak eleanitzak sortzea helburu saihestezina da.

Ikastetxearen klaustroa 35 irakaslek osatzen du, haietako %43 behin betikoa izanik. Beraz urtero datozen langileen harrera oso inportantea da alde batetik lan taldeak sortzeko irudimenezko estrategiak sortzen eta bestetik ikastetxearen proiektuen jarraipena bermatzeko eta lan giro aproposa eusteko. Minas Institututik pasatu diren irakasleen aburuz leku atsegina eta edonor errez moldatu daitekeen ikastetxea da.

Atzerriko bigarren hizkuntzari dagokionez, hizkuntzan arteko tratamendu integrala izango da abiapuntua non bi hizkuntza ofizialak ingelarekin batera, hirurak

curriculumean nahi pisu orekatuarekin, elkarren arteko estrategiak diseinatzeko gauzak izango diren emaitza akademikoak eta helburuak hobetzeko.

XXI. mendeko euskal gizartea hiztun anitza da, horrek euskal eskolarentzat pertsona hiztun anitzak lortzea ezinbesteko erronka bihurtzen du.

LERRO ESTRATEGIKOAK

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren barruan, hurrengo ikasturtean 2016-2017. ikasturtean garatu behar duguna Minas Institutuan EREDU ELEANITZA eskaintzeko aukera aztergai izango dugu. Eredu honek euskara izango du ardatz, bere trataera lehenetasuna izango da, alegia. Hizkuntza aukeratzeko askatasunaren printzipioa bermatzen, Euskara Normalizatzeko, azaroaren 24ko 10/1982 legeak jasotzen duena eta derrigorrezko hezkuntza ibilbidea amaitzerakoan bi hizkuntza ofizialak ezagupen praktikoa eskuratzeko aukera bermatzen duelarik. Eredu eleanitz honetan ingeleraren ordu kopurua asteke 6 ordukoa izango delarik.

Hori ere bat dator Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Markoak: ikaspen, irakaskuntza eta ebaluazioa (2001), izenekoak proposatzen duenarekin.

INSTALAZIOAK ETA HORNIDURA

Minas BHiko instalazioak espazioa, kalitate eta egokitasunari dagokionez ontzat eman ahal ditugu: 3 laborategi (Fisika, Kimika eta Biologia); bi informatika gela; 1 Teknologia, 1 Plastikakoa, hornidura Eskola 2.0, DBH 1. eta 2. mailako geletan net book bana ikasleentzat, WIFI, arbel digitala (P.D.I.) gela guztietan eta lau gehiago bikoizketa geletan, Areto Nagusia hornidura digitalarekin, jantokia 140 pertsonentzat, gimnasioa, kanpoko patioa eta aparkalekua irakasleentzat.

Beharrianen artean besteak beste : oztopo arkitektonikoak desagerraraztea, igogailua eta ikasleentzako estalpe bat patioan.

Gure ikastetxeak Teknologia Berriak egokitzeko eta erabiltzeko apustu tinko bat egiten du, ikas irakas prozesuetan txertatzeko eta arlo didaktikoetan materialak sortzeko eta era berean informazio bideak hobetzeko. Ikasturte honetan 2015-2016 gure webgunea martxan jarri dugu: www.iesminas.net Honek sekulako aurrerapausoa suposatu du gure komunikabideetan barneko zein kanpoko harremanetarako. Lana errazteko eta irakasleen arteko koordinazioa ahalbidetzeko intranet edo barneko sare bat daukagu :TGIRMINAS, bertan zuzendaritza eta sail didaktikoek gure oinarrizko euskarri dokumentalak eta programazio eta ebaluazio prozesuak elkarbanatzeko aukera daukate.

3. PRINTZIOAK, BALIOAK ETA EZAUGARRIAK

Gure ikastetxeak, euskal eskola publiko sarearen partaidea den heinean gure gizartea arautzen duten lege nagusietan biltzen diren oinarritzko eskubideak ditu abiapuntu. Izan ere, hurrengo printzipio hauei lehentasuna emango die:

1.- Ikaslearen protagonismoa

Gure ikastetxean erabiliko ditugun metodologietan ikaslea izango da abiapuntu eta bere garapen integrala helburu. Ikasleak proiektu globalak landuko ditu bere eskura dauden baliabide guztiak abian jarri behar izateko, proposatutako zereginak burutzeko, beharrezko laguntza eskatzen ikasteko eta norbere autonomia handitzeko.

2.- Hezkidetza, ekitatea eta kalitatea

Berdintasuna eta ekitatea gauza bera ez delako, alde batetik gure ikastetxean berdintasunarekin konpromisoa geureganatu nahi dugu, bazterkeriaren aurka borrokatuz eta ikasle bakoitzaren ahalmena ahalik eta gehien garatu dadin lan eginez, eguneroko bizitzan aurrera egiteko gaitasuna, erantzukizuna eta izaera kritikoa lor ditzaten. Garapen maila guztietan emaitzen hobekuntza eustearen bitartez ikasle guztiek eskola-arrakasta izatea dugu helburu.

3.-Inklusibitatea

Gure ikastetxean desberdintasuna aberasteko aukera hartu nahi dugu, eta erreferente etiko nagusia giza duintasunaren balioa izatea. Gure ikasleek gaitasuna eskuratuko dute ikas prozesuaren oztopoak gainditzeko, eta, horren ondorioz, euren proiektu pertsonalak eta lan proiektuak eratu ahal izango dituzte.

4.- Bizikidetza

Minas ikastetxean jarduera guztien oinarrian giza eskubideen errespetua eta bizikidetza demokratikoaren printzipioa egongo da; gure ikastetxeetako arlo guztietan, errespetua, erantzukizuna, tolerantzia eta elkartasuna sustatuko da, hezkuntza komunitate osoaren ongizatea eta asebetetzea bilatuz.

5.- Parte-hartzea

Ikastetxe plurala nahi dugu, pertsona guztiak hartzen dituenak eta irakasle, ikasle, familia eta gainerako profesionalen arteko lankidetzak sustatzen duenak eta ingurunearekin eta gizarte osoarekin inplikatzen dena. Parte-hartzea sustatu nahi dugu bereziki familien eta ikasleen aldetik, bide egokiena baita hezkuntza komunitatean proiektu bateratuak aurrera eramateko, eta gure ikasleentzako hezkuntza baldintza onenak bermatzeko.

6.- Akonfesionala, ez-doktrinatzailerak, zientifikoa

Ikastetxe akonfesionalaren aldeko apustua egiten dugu, non irakaskuntza-sistemak izaera eta zorrotasun zientifikoa lantzen duen.

7.- Irakasleen gaitasun profesionala

Irakasleen etengabeko prestakuntzaren alde egiten dugu, ikastetxean zein ikastetxetik kanpo kalitateko hezkuntza helburu izango duen lankidetzak, parte-hartze, koordinazio eta irakaskuntzan gaitzeko kultura lortzeko.

8.- Berrikuntza

Gure ikasleek ikaspen esanguratsuak eta erabilgarriak lortzea bermatuko duten proiektu berritzaileak sustatuko ditugu, eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan Informazio eta Komunikaziorako Teknologia (IKT) hartzen ditugu funtsezko tresnak.

9.- Eleaniztasuna

Ikasle eleanitzen prestakuntzaren aldeko apustua egiten dugu. Euskararen erabilera eta normalizazioa lehenetsiz, ikasleek bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) menperatuko dituzte eta atzerriko hizkuntza batean, behinik behin, trebatzeko eta komunikatzeko gai izango dira.

10.- Konpromiso etikoa

Hezkuntza oinarrizko eskubidea da eta pertsona guztiei bermatu behar zaie, gizakoitasunak, justiziak eta demokraziak aginduz. Konpromiso hori dela eta, ikasle batek ikasteko ahalmenean izan ditzakeen oztopoak gainditzeko beharrezko neurriak hartuko ditugu.

4. HELBURUAK

- a) *Gure ikasleen ahalmen eta gaitasunen garapen osoa sustatzea; horretarako, arrazonamendua, izaera kritikoaren lanketa eta libreki eta erantzukizunez erabakiak hartzearen bitartez euren ikaskuntza sustatuko duten metodologia aktibo eta lankidetzakoak erabiliko dira*
- b) *Ikasleen garapen emozionalari garrantzia ematea; horretarako, pertsona gisa hazteko eta pertsonen arteko harreman positiboak ezartzeko balioko dieten trebetasunak landuko dira.*
- c) *Ikasleek euren buruaren irudi positiboa lortzea, euren mugak onartzea eta euren aukeren jakinaren gainean egotea.*
- d) *Ikasle eleanitzak lortzea, euskarari lehentasuna emanez, erabilpenaren normalizazioa lortu arte eta atzerriko hizkuntzei curriculum esparru zabalgoa eskaintzea.*
- e) *Hezkuntza komunitateko kide guztien artean tolerantzia eta errespetu giroa erraztea eta elkarrizketaren eta parte-hartze arduratsuaren bitartez gatazkak gainditzea, guztiontzat lan giro atsegina lortzeko.*
- f) *Gure ikasle guztien arrakasta ardatz duten hezkuntza proposamenak lehenestea, emaitza akademikoen hobekuntza helburu.*
- g) *Ikasleengan eta familiengan ikasketarako itxaropen eta motibazio altuak erraztea.*
- h) *Ikasleen, irakasleen eta familien adierazpen eta parte-hartze bideak erraztea; horretarako, gure ikastetxearen antolakuntza eta garapenean guztion lankidetzari emango zaio garrantzia.*
- i) *Irakasleen etengabeko prestakuntza eta koordinazioa sustatzea, kalitatezko hezkuntza baten adierazle den aldetik.*
- j) *Teknologien (IKT) erabilera handituko da, irakaste-ikaste prozesuaren eta eskola-komunitate osoaren zerbitzura jarrita.*

5. LERRO ESTRATEGIKOAK

Atal honetan aurretik ezarritako printzipioak, baloreak eta helburuak aurrera eramateko eta gauzatu ahal izateko hurrenez hurren zeintzuk izango diren tresnak eta estrategiak islatuko ditugu.

5.1. *Lerro estrategikoak curriculum esparruan gauzatzeko irizpideak*

a. PLANTEAMENDU METODOLOGIKOAK

Gure ikastetxean aplikatuko diren hezkuntza proposamenetan honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- ✚ Ikasleek euren ikaskuntzan parte hartzea. Ikasten ikasi gaitasuna garatzen.*
- ✚ Irakasleak askotariko ikaskuntza egoerak eskaini eta diseinatuko ditu, eta erritmo desberdinak errespetatuko dira lan horretan.*
- ✚ Proposamen didaktikoak ikasleen ezagupenetan oinarritzen dira, euren ahalmenetan jarritako konfiantzan eta euren berezitasunetara egokitutako irakaspenean.*
- ✚ Ikasleen buru-erregulazioa indartzea eta autonomia lantzea.*
- ✚ Berdinen arteko elkarrekintza sustatuko da ikaskuntzarako estrategia gisa.*
- ✚ Baliabide didaktiko anitz erabiltzea eta inguruko hezkuntza aukerak baliatzea.*
- ✚ Gaitasun guztiak landuko direla bermatzeko planteamendu global edota diziplina artekoak bultzatuko dira.*
- ✚ Denboraren eta espazioaren antolamendu malgua, ikasleen ikaskuntza prozesura egokitzeko aukera izateko.*
- ✚ IKTak sartuko dira curriculumean, ikas-irakas prozesuetan horien erabilera normalizatuta.*

b. EBALUAZIOA

Ebaluazioa prozesu antolatua eta sistematikoa da; beraren bitartez, ikas irakats prozesuari buruzko informazio garrantzitsua lor daiteke etengabe, eta hori

erabakiak hartzen joateko euskarri izango da, hobekuntzara bideratuta. Horretarako, honako hau hartu behar da kontuan:

- ✚ Ebaluazioa abiapuntua dela hartutako erabakiak irakaste-ikaste prozesua hobetzeko. Ebaluazioak benetako prestakuntza izaera du.*
- ✚ Ikasleen arteko ebaluazioa eta buru-ebaluaziorako estrategiak landuta euren motibazioa handitu egiten da eta euren ikaskuntza prozesuan protagonista direla sentitzen dute.*
- ✚ Ikaskuntza prozesuen eta irakasleen jardunaren ebaluazioa etengabeko hobekuntzarako tresna da.*
- ✚ Ebaluaziorako askotariko estrategia eta baliabideek aniztasunari erantzuteko modua errazten dute.*

c. IKASLEEN DIBERTSITATEARI ERANTZUNA EMATEA

Gure ikastetxean aplikatuko diren metodologia planteamenduen helburua honako hau izango da:

- ✓ Ikasle guztiek testuinguru normalizatuetan erabateko barne-hartzea eta eskola-arrakasta lortzea, euren heziketa beharrak zein diren antzemanda eta era goiztiarrean esku hartuta.*
 - Ikasle guztientzat, inor kanpoan utzi gabe, sarrera, ikasketa eta parte-hartze aukerak sortuz.*
 - Gure erabaki guztiei zentzu etiko bat emanez.*
 - Curriculuma ikasle bakoitzaren inguruabarrei egokituko zaiela bermatuz, plan eta tutoretza pertsonalizatuaren bidez eta neurri barne-hartzaileak hartuz.*
 - Arreta goiztiarraren, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren eta guztion irisgarritasunaren aldeko apustua eginez.*

d. ORIENTAZIOA ETA TUTORETZA

*Tutoretzaren **planteamenduak** norbanakoaren eta taldearen beharrianei erantzun beharko die, eta honako hau izango du kontuan:*

- *Helburu nagusia da ikasleek euren bizitza proiektuaren arduraren eurenaganatzea.*
- *Talde-ikasgelaren kohesioa bilatzen du ikasle bakoitzaren gizarteratze elementu gisa.*
- *Ikasle berriari harrera ematearekin hasten da eta beste ikastetxe, etapa edo ikasketa batzuetarako bidean jarraitzen du.*
- *Ondoan egote hori arlo pertsonalera, akademikora eta lanbide orientaziora iristen da.*

e. HIZKUNTZ PLANGINTZA

Minas institutuko testuinguruari begira arlo honi dagokionez Hizkuntz plangintza honako irizpide hauek kontuan hartuta egingo da:

- *Euskararen erabilera normalizatzea gelan zein gelatik kanpo.*
- *Hizkuntzen tratamendu integratuaren bitartez, bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelera) menperatzea eta atzerriko hizkuntza batean komunikazio gaitasuna lortzea, eleaniztasunerantz jotzen.*
- *Irakaste-ikaste prozesuan metodologia komun bat adosteko koordinazioa sustatzea, ikasleengan kalitatezko hizkuntza gaitasuna lortzeko lau dimentsioetan: irakurketa, ulermena, idaztea eta ahozkoa.*

f. PRESTAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA

Prestakuntza eta berrikuntza prozesuak zeharo lotuta daude; izan ere, ez dugu ulertzen prestakuntza-ekintzarik praktikan aplikazioa ez duenik, ez eta ekimen berritzaileak berrikuntza bera justifikatzen duten hausnarketa eta analisi prozesuak barnean hartzen ez dituenik. Ildo horretan, honako hau egin behar dela uste dugu:

- *Irakasleen prestakuntza bultzatu, norbanakoa zein taldearena maila profesionala handitzeko.*
- *Praktikaren analisia abiapuntu hartuta hezkuntza jarduketarako lerro komuna ezartzen lagunduko duten eta irakasleen artean eta ikasleen artean talde lana indartuko duten prestakuntza lerroak lehenetsi.*
- *Prestakuntza jarduera desberdinek ikasgelako lanean eta ikastetxearen antolamendu eta funtzionamenduan eragina izango dutela ziurtatu.*
- *Metodologia berritzaileetan prestakuntza sustatu.*
- *Prestakuntza antolatu, ikastetxean markatutako hobekuntza arloei erantzuteko.*
- *Hezkuntza komunitate osoaren prestakuntza sustatu.*

5.2. Lerro horiek antolakuntza esparruan gauzatzeko irizpideak

a. *ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDUA*

Gure ikastetxean curriculuma lantzeko, ikasleen ikaskuntzarako eta irakasleen jardunerako markoa eratzen dugu. Hezkuntza prozesuen berrikuntza eta hobekuntza errazteko funtsezkoak dira eskolaren antolakuntza eta beronen funtzionamenduaren egiturak. Horretarako, beharrezkoa da honako alderdi hauek kontuan hartzea:

- ❖ Funtzioen banaketa eta zereginen esleipena ekitate eta gaitasun irizpideetan egongo dira oinarrituta eta guztion zereginetan koordinazioa, inplikazioa eta konpromisoa sustatzea bilatuko da.*
- ❖ Curriculumaren gaitasun ikuspegiak ikas irakats estrategia berriak eskatzen ditu eta hauek, era berean, antolakuntza egitura berriak eskatzen dituzte, proiektu globalak lantzeko aukera izate aldera.*
- ❖ Gure ibilbide bereko Lehen Hezkuntza ikastetxeen arteko koordinazioa bermatuko duten egiturak ezarriko dira.*
- ❖ Talde-ikasgela bakoitzean esku-hartzen duten irakasle kopurua, ahal den neurrian, murrizten ahalegintzea.*
- ❖ Ekonomia baliabideen kudeaketan prozedura gardenak erabiltzea.*

b. *PARTE-HARTZE EREDUA*

Minas Institutuan ikastetxean benetan parte hartzeko bideak bermatu behar dira:

- ❖ Irakasleek bat egingo dute ikastetxearen kudeaketarekin proiektu komun bat landuz mintegien bitartez eta Pedagogia Batzordearen bitartez.*
- ❖ Ikasleek eskola jardueren arlo guztietan parte hartzeko bideak jorratu beharko dira Ikasle Laguntzaile batzordearen bitartez.*
- ❖ Familien eta irakasle ez direnen partaidetza sustatuko da "Cafe con Familias" batzordearen bitartez eta OOGenaren bitartez.*

- ❖ *Hezkuntza komunitatearen eta ikastetxearen ingurunearen arteko elkarrekintza indartuko da: Berritzegune, Eskola Osasuna (Osakidetza), Udala eta bere Zerbitzuekin.*

c. **BIZIKIDETZA**

Ikastetxeak bizitzarako, harremanetarako eta etengabeko komunikaziorako eremuak dira guretzat, eta hau horrela izan dadin, bizikidetza eta eskola giro positiboa hartzen ditugu oinarritzat. Proposamenak egitea komeni da, zertarako-eta:

- *Bizikidetza, hezkidetza eta genero indarkeriari aurre hartzeko planak guztion artean egingo direla eta aplikatuko direla bermatzeko; horretarako, Bizikidetza Batzordea indartuko da, harreman positiboetan oinarritutako giroa lortzeko. **"Hezkidetza proiektua"** abiapuntua izango dugu.*
- *Bitartekaritza, erabaki komunitarioa, kontziliazioa eta konponketa oinarri hartuta gatazkak modu positiboan konpontzeko beharrezko gaitasunak lantzeko. Honetan **"Ikasle Laguntzaileak"** batzordea indartuko dugu.*

6. IHP-REN IRAUNALDIA ETA BERRIKUSPENA

IRAUNALDIA

Dokumentu honen iraunaldia bermatzeko, bizirik mantentzeko eta egunero gure zentroan hartzen ditugun erabakien abiapuntua izateko ezinbestekoa da irauteko akordio batzuk zehaztea.

Beraz, aurrerantzean gure Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren egiaztatzea (IHP) ahalbidetzeko jarraibide batzuk adieraziko ditugu:

IHP-ren iraunaldia ahalbidetuko duten irizpideak:

1.- Aintzat hartu IHP une ezberdinetan:

- Senideekiko batzarretan: deialdi orokorrak, ikasturte hasierakoak, eta abar.*
- Matrikulazio aldietan: web, kartelak, triptikoak*
- Profesional berrien harreretan: irakasleak, irakasleak ez direnak,, ikasleak.*

2.- Lerro nagusiak plazaratu

3.-Ikastetxeko bestelako dokumentuekiko koherentzia: ICP, AJA, Bizikidetzua Plana, Aniztasun Plana, Hizkuntza Proiektua, Berriztatzeko Proiektuak, Zuzendaritza Taldeen Proiektua, Urteko Plana eta Programazioak.

4.- Hezkuntza praktikarekiko koherentzia: gelako jardunbideak, ikastetxearen bizimodua, jarduera osagarriak (atsedenaldiak, jantokia, sarrerak /irteerak ...).

5.- Eskolaz kanpoko ekintzak.

BERRIKUSPENA

Hemen izango ditugu IHP-ren eguneratzeko premiaren berri emango diren adierazleak eta aldizkako berrikuspenaren epeak.

- IHP-ren gaurkoratzea gomenda daitezkeen adierazleak:

- 1. Langile kopurua nabarmen aldatzen denean.*
- 2. Berriak eta ustekabeko egoerak direnei aurre egiteko irizpideak argitzeko beharra ikusten denean.*
- 3. Hezkuntza komunitatearen ehuneko esanguratsuak adieraziko balu.*
- 4. Zuzendaritza Taldearen aldaketa.*
- 5. Plana, proiektu, lerro metodologikoekiko koherentzia falta antzematen bada.*

- Aldizkako Berrikuspena

2 urtean behin, edota zuzendaritza taldearen aldaketarekin ezinbestekoa da IHP-ren berrikuspena egitea.